


4. Buletina Otsaila 2024

Euskadiko Behatoki Turistikoak **2023ko abendu**ko eta **urteko itxiera**ko Euskadiko eskaintza eta eskari turistikoari buruzko koiuntura-adierazle nagusien azterketa laburra egin du, eta **araututako ostatu turistiko**en **guztizkoari buruzkoa**. Gainera, **Merkatu igorleen sailkapena hirietan** deritzon datuen panel berria aurkezten dizuegu.

HIRIETAN, MERKATU IGORLEEN SAILKAPENAREN DATU-PANEL BERRIA

Datu-panel horri esker, berritasun gisa, Gasteizen, Bilbon eta Donostian gaua igarotzen duten turisten jatorriko merkatu igorleen jarraipena egin daiteke hileroko eta urtero. Merkatu horien bilakaeraren monitorizazioa Eustaten ETR estatistika-eragiketarako emandako datuetatik lortzen da.


2023KO ABENDUA



2023ko azaroan **igoera garrantzitsuak** ikusten dira **sarreratan**, +**%4,9** (293.483) eta **gaualdietan**, +**%6,6** (587.942) baina **behera egiten du plazakako okupazio-mailak**, - **%3,4** (%29,06)

Hotelak dira turisten kopuruan **gora egiten duten bakarrak** (+%6,6), **gaualdietan** (+%6,9) eta **plazakako okupazio-mailan** (+%5,6). **Gau-eta turisten kopuruan apartamentu turistikoek ere** hazkundeak izan dituzte eta **kanpinak hazkunde nabarmena gau-kopuruan** (+%100).

Euskadiko hiri-, kostaldeko eta barneko helmugek sarrera gehiago eta gaualdi gehiago jaso dituzte, eta **okupazio-mailan gora** egin dute. Vitoria-Gasteizek, gaualdietan eta okupazioan gora egin arren, behera egin du turisten kopuruan (-%4,9). Eta **Arabako Errioxak behera** egin du turismo-eskariaren adierazle guztietan.



MERKATU IGORLEEN SAILKAPENA. 2023KO ABENDUA

10 MERKATU IGORLE NAGUSIAK

JATORRIAK	SARRERAK 2023 vs 2022	GAUALDIAK 2023 vs 2022
Euskadi	%2,9	%3,1
Madrilgo Erk.	%6,1	%5,3
Frantzia	%6,6	%6,7
Katalunia	%10,4	%10,3
Gaztela eta Leon	%12,9	%13,3
Nafarroa	%2,6	%1,1
Valentziako Erk.	%5,5	%0,9
Andaluzia	%22,1	%20,2
Galizia	%3,8	%8,5
Aragoi	%7,1	%15,4

Merkatu nazionalaren pisu handiagoa, %70 nazioarteko merkatuaren %30aren aldean.

10 merkatu igorle nagusien artean, abenduan, **nazioarteko merkatu bakarra dago, Frantzia**, hirugarren postuan. **Bisitari-kopuruan behera** egin duten merkatu igorleak **Madrilgo Erkidegoa eta Andaluzia** dira. **Gau-kopuruan jaitzi** direnak **Madrilgo Erkidegoa, Nafarroa, Andaluzia eta Galizia** dira.

Sailkapenaren liderrak, ordena honetan: **barneko merkatua (Euskadi) (%17,3)**, **Madrilgo Erkidegoa (%14,2)**, **Frantzia (%10,2)**, **Katalunia (%9,1)** eta **Gaztela eta Leon (%4,4)**.

2023KO URTEA



Igoera nabarmenak 2023ko urtean, sarreratan, +%8,3 (4.594.838), **gaualdietan**, +%8,9 (9.730.100) eta **plazakako okupazio-mailan**, +%1,3 (%37,89). Era berean, **plazakako eskaintza %3** hazi da 2022arekin alderatuta.

Desestazionalizazioaren hazkundera, batez **ere, urteko lehen seihilabetekoan** ikusten da, **igoera azpimargarriekin urtarilean** (+%28,4), **otsailan** (+%10,7) eta **martxoan** (+%11,5).

Aztertutako ostatu-mota guztiek gora egin dute turisten kopuruan, **gaualdietan eta plazakako okupazio-mailan**. **Aterpetxeak izan ezik, urtea beherakadekin itxi baitute**.

Euskadiko hiriek, kostaldeko eta barnealdeko helmugek 2023an turista gehiago, gaualdi gehiago eta betetze-maila handiagoa izan dute. Igoerarik nabarmenenak hirietan izan dira. **Arabako Errioxak hazkunde txiki batekin bukatu du urtea baina baita jaitziera txiki batekin sarreratan eta okupazioan**. **Helmugaren desentralizazioa hazi egin da Euskadiko barnealdean izandako batz besteko okupazioaren igoera handiagatik**. (+%9,5)

2023 URTEKO MERKATU IGORLEEN SAILKAPENA

10 MERKATU IGORLE NAGUSIAK

JATORRIAK	SARRERAK 2023 vs 2022	GAUALDIAK 2023 vs 2022
Madrilgo Erk.	%1,7	%0,7
Euskadi	%1,7	%1,8
Frantzia	%9,9	%11,3
Katalunia	%4,4	%4,8
EEBB	%23,2	%22,2
Andaluzia	%9	%8,1
Alemania	%23,6	%25,5
Erresuma Batua	%18,2	%16,5
Gaztela eta Leon	%7,7	%8,5
Valentziako Erk.	%11,7	%12,2
Gaztela eta Leon	%7,7	%8,5
Valentziako Erk.	%11,7	%12,2

2024 izan da **nazioarteko merkatuak hazkunderik handiena** izan duen urtea (+%16) eta %45eko **pisu historikoa** lortu du.

10 merkatu igorle nagusiek hazkunde metatuak izan dituzte bai sarreratan bai gaualdietan ere, **Madrilgo Erkidegotik etorritakoen kasuan izan ezik**, %1,7 behera egin baitute. **Hazkunde nabarmenak izan dira Amerika, Alemania, Ingalaterra eta Valentziako merkatuetan**.

Sailkapenaren liderrak, ordena honetan: **Madrilgo Erkidegoa (%12,3)**, **barneko merkatua (Euskadi) (%10,8)**, **Frantzia (%9,9)**, **Katalunia (%8)**, eta **Estatu Batuak (%3,9)**.